

Alondegia berrasmatzeko partaidetza-prozesua

Lesakako arazo eta beharren inguruko gogoeta kolektiboa

Herritarrekin 2. lan-saio irekia

Eguna: 2022/05/21

Ordua: 10:00-12:45

Lekua: Lesakako liburutegia

Partaide-kopurua (guztira): 20 lagun. 14 emakume (% 70) eta 6 gizon (% 30).

Gai zerrenda:

1. Sarrera
2. Alondegia erabileraren lehentasunei erantzuteko proposamena ezagutu
3. Denon artean proposamena aztertu, baloratu eta ekarpenak egin
4. Hurrengo urratsak eta balorazioa

Akta:

1. Sarrera
 - a) Harrera

Iristen joan ahala erregistro-orriak bete ditugu eta, datuen babeserako legeak hala eskatuta, prozesura hurbildu diren partaide berrien datuak eta irudiak prozesuari lotuta erabiltzeko baimen-orriak bete ditugu. Bakoitzak bere izena jarri du paparrean pegatina batean, eta saioan aurkeztuko dugun proposamenaren kopia bana eman diogu bertaratu bakoitzari.

b) Kokapena

Ladis Satrustegi Alzugaray Lesakako alkateak ongietorria eman die bertaratutako guztiei, prozesuan non kokatzen garen azaldu eta Elhuyarreko teknikariak aurkeztu ditu: Elixabet Urzelai Gonzalez-Etxabari eta Lur Etxeberria Iradi.

Jarraian, Elhuyarreko teknikariek prozesuaren helburu eta urrats nagusiak gogoratu eta gaurko saioaren nondik norakoak kokatu dituzte.

Jarraian aurkezpena:

ALONDEGIA BERRASMATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



ABIAPUNTUA

- **Alondegia potentzial handia duen eraikina** da. Aukera handiak eskaintzen ditu udalerriko azpiegitura-beharrei eta Lesakak herri gisa dituen erronkei erantzuteko, bere tamainagatik eta bere kokapenagatik.
- Hori dela eta, Udala **herriko eragile eta herritarrekin ariketa kolektibo bat** egiten ari da, denon artean herriko arazo eta beharren inguruan hausnartu eta **Alondegiaren etorkizuneko erabilerak adosteko**.

PROZESUAREN HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA:

Alondegiaren etorkizuneko erabilera(k) herritarrekin batera landu eta zehaztea.

ZEHARKAKO HELBURUAK:

- **Udalerriko arazoak eta beharrak** identifikatzea eta horien inguruko **gogoeta kolektiboa** egitea.
- **Eragile eta herritarrek norberaren beharrak azaleratu, gainerakoek beharrak ezagutu eta, horiekiko ardura kolektiboa hartzea.**
- **Komunitatea sendotzea:** Eragile eta herritarrek elkarrekin lan egin eta harremanak sendotzea.
- **Udalaren eta herritarren arteko zubiak** eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabakitzeko kulturaren sakonduz.


PROZESUAREN FASEAK

2. ENTZUTE-FASEA

Lesakako arazoak eta beharrak identifikatu.

- 8 talde-elkarrizketa
- 68 lagun

♀ % 57 Haurrak: 16
♂ % 43 Helduak: 52



2. ENTZUTE-FASEA

Emaita:

Lesakako arazo eta beharren diagnostikoa

Elkarteen eta mugimenduen arazoak eta beharrak

MUGIMENDU EKOLOGISTA

- Naturaren erabileraren arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.
- Naturaren erabileraren arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.
- Naturaren erabileraren arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.

XULIFRINKA SARE FET

- Sarearen erabileraren arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.
- Sarearen erabileraren arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.

GAZTE MUGIMENDUA

- Gazte mugimenduen arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.
- Gazte mugimenduen arazoak behar bezala aztertzea eta erantzuteko beharra. Datuak jasotzea, aztertzea eta erantzuteko beharra.

XORROKIN IRARATA

Arazo eta behar orokorrak

3. GOGOETA KOLEKTIBOA EGIN ETA ERABAKITZEKO FASEA

Apirilak 2

Entzute-fasean identifikatutako arazoak eta beharrak ezagutu.




Apirilak 2


Alondegia etorkizuneko erabilerekin zer behar eta aukerei erantzun behar dieten landu.

Lehentasunak zehaztu.

- **Herrigintza** garatzeko espazio partekatu bat
- Herrian **enplegu berriak, berrikuntza, ekintzailtza eta tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiz



3. GOGOETA KOLEKTIBOA EGIN ETA ERABAKITZEKO FASEA



Apirilaren 2ko saioan, beraz, Alondegiaeren etorkizuneko erabilerek zer lehentasuni erantzun behar zieten zehaztu genuen. Lehentasun horiek aintzat hartuta, Talde Eragilea lehentasun horiek nola gorpuztu pentsatzen eta lantzen aritu da bitarte honetan. **Gaurko saioaren helburua, beraz, proposamen zehatzago horiek ezagutu, kontrastatu eta adostea** izan da.

Ariketa hau egin ondoren, prozesua baloratu eta adostutako erabilerak sozializatzeko fasea irekiko dugu.

2. Alondegiaeren etorkizuneko erabileren lehentasunei erantzuteko proposamena ezagutu

Lehenik eta behin, alkateak herritarrekin zehaztutako lehentasunetan oinarritutako proposamena lantzeko urratsak azaldu ditu:

Proposamenak zehazteko urratsak

- Herritarrokin apirilaren 2an zehaztutako **lehentasunak nola gorpuztu pentsatzen** hasi.
- Tokiko garapena eta bertako enplegua sortzeko beharrari nola erantzun irudikatzeko **Errenteriako Torrekuara bisita**.
- Cederna Garalurrekin** bilera.
- Beti Gazterekin** bilera.
- Xorroxinekin** harremana.



Ondoren, apirilaren 2an zehaztutako lehentasunei erantzuteko Talde Eragileak landutako proposamena aurkeztu dugu.

1. LEHENTASUNA:

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Entzute-fasean identifikatutako beharra

ENPLEGUA - BERRIKUNTZA - PROIEKTU-ITSASARGIAK

- Lesakaren **historia hurbila industriari oso lotua**. Ondorioz:
- **Enplegu gehiena industriak** sortzen zuen. Industriaren gainbeherarekin ataka batean: **Nola sortuko dugu enplegua? Eta zer enplegu-mota sortu nahi dugu?** Lesakan bizi eta lan egiteko aukerak sortzeko beharra. Eta beste garapen-eredu bat bultzatzeko aukera.
- **Proiektu-itsasargiak** falta zaizkigu, aukera emango luketenak Lesakako **gazteak** proiektu horietan inplikatu eta herrian geratzeko.
- Fabrikaren bueltan bizitzeak ekarri du dagoenarekin konformatzea, **irizpide kritikoa, sormena, ekintzailtza eta berrikuntza ez garatzea**. Herriarrok gure beharrak aztertu, **antzeko kezak eta beharrak dituztenekin elkartu eta konponbideak/alternatibak irudikatu eta gauzatzeko**. Kontsumitzetik sortzera pasa behar dugu, indibidualismotik kolektibotasunera.
- Ikasketak eta enplegua: **Gazte gehienak kanpora joaten dira** ikastera, lanera... Unibertsitate-adinean Lesakatik kanpora joan behar izaten dute eta herrian asteburuetan egoten dira soilik. **Lesakan lan egiteko aukerak sortzeaz gain, Lesakan ikasteko aukerak sortzeko beharra** (Lesakan bultzatu nahiko genukeen garapen-ereduarekin lotuta).

Apirilaren 2an zehaztutako 1. lehentasuna:

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Herrian **enplegu berriak** sortzeko eta **tokiko garapena** bultzatzeko gune bat, horretarako **trebakuntza** eta bitartekoak eskainiko dituena.

Erabileraren helburu nagusiak

- Herrian **lan egiteko aukera berriak** sortzea, horretarako **bitartekoak** eskainiz (trebakuntza, akonpainamendua, etab.).
- **Ekintzailtza, berrikuntza** eta **sormen-ekonomia** bultzatzea.
- **Eraldaketa ekonomikoa** bultzatzea, alegia, **sozialki justua eta ingurumenari dagokionez jasangarria** izango den garapen-eredu bati erantzungo dioten egitasmoen eta enpleguaren sorrera bultzatzea.

Ardatz nagusiak

TOKIKO GARAPEN JASANGARRIA

BERTAKO ENPLEGUA

SORMENA

TREBAKUNTZA ETA
AKONPAINAMENDUA

EKINTZAILTZA
KOLABORATIBOA /
EKINTZAILEAK
ELKARRIZKETAN

Egitasmoaren ezaugarri nagusiak

- **Eskualdearen garapen ekonomiko jasagarria irudikatzeko eta sustatzeko epizentroa.** Cederna Garalurrek gidatua. Cederna Garalurren zonaldeko bulegoa bertan kokatuko litzateke.
- **Enpresa-inkubagailua.** Ideia berriak garatzeko espazio bat (urte-kopuru jakin batean erabiltzeko), akonpainamenduarekin (tutoretza, bakarkako trebakuntza -mentoreak gai ezberdinetan-...). Coworking espazio bat, bitarteko batzuekin (inpresora, wifia...).
- Ekintzaile edo negozioa berritzeko laguntza behar dutenentzako **aholkularitza** (bertan kokatuta daudenentzat nahiz ez).
- **Trebakuntza orokorrak eta espezializatuak eskainiko dira**, sustatu nahi diren trebetasunak eta lan-eremuak bultzatzeko. Era berean, sektore jakin bati bideratutako trebakuntzak egingo dira sektorea elkartu eta saretzeko. Trebakuntzak eskaini ondoren, bekaren bat eskaintzeko aukera, negozio-ideia garatzeko. Ondoren, bekadunak urte batzuetan zehar Alondegian bere egitasmoa garatzeko aukera.
- **Coworkingerako espazio bat.** Etxetik edo bakarka lan egiten duten ekintzaileei bitartekoak eskaini eta elkarriketan jarriko dituen. Arlo jakin batean lanean denbora daraman jendea eta hasi berriak nahastu. Sektore ezberdinetakoak. Espazio kolaboratibo bat. Espazio elkarbanatu bat. Kolaborazio-kompetentziak gara ditzaten ekimen zehatzak (espazioa partekatzea ez da nahikoa): adib. erakusketa/proiektu bat prestatu elkarrekin, inguruko ikastetxeentzako ate irekiak, herritarrentzat tailerrak, aldi baterako dendak data jakinetan... Horretaz gain, besteek nola lan egiten duten ikusi eta elkarrengandik ikasi.
- **Loturak** egingo dituen eskualdeko eta zonaldeko beste gune batzuekin (hemen landutako erakusketa bat beste udalerrri bateko eraikin batean...). Eta harremana egingo du **zonaldeko lanbide zentroarekin**, zer lanbideren ikasketak bultzatu pentsatzeko eta, ikasketak egin ondoren, ikasleak enpresa-inkubagailurako proiektuak aurkeztera animatzeko.

Erabiltzaileak

- Egitasmoak aurrera egingo balu, gehiago zehaztu beharko litzateke eta, besteak beste, erabiltzaileak hautatzeko irizpideak landu.

Zer solairu

- 2. Solairua eta ganbara (*espazio batzuk herrigintzakoekin parteka litezke)

Funtzionamendua, kudeaketa, bitartekoak, etab.: zertzelada orokorrak

- Cederna Garalurrek kudeatuko luke egitasmoa. Bere egoitza ere bertara ekartzeko prest dago. Gaur egun jada berak eskaintzen dituen ikastaroak, aholkularitza... bertan emango litzuzke. Udalak zesioa egingo lioke garapen-agentziari: lokalaren erabilera kudeatzeko eta egitasmoa garatzeko.

Azpiegitura

- Cederna Garalurren bulegoa
- Coworking espazioa, internet-konexioa eta inpresora partekatu bat
- 2 bilera-gela (pantailarekin)
- Ikastaro-gela (pantaila eta arbelarekin)
- Proiektu partekatueterako espazioa: erakusketak, ate irekiak, aldi baterako dendak...

2. LEHENTASUNA:

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Entzute-fasean identifikatutako beharra

ELKARTEGINTZA – ELKARLANA – ELKARTEEN ARTEKO SINERGIAK

- **Eragile batzuk osasuntsu** daude, esaterako, kulturgintzan, mugimendu feminista, kirolean... Beste eremu batzuetan, ordea, **jendea antolatzeko zailtasunak** daude, adibidez, gaztetxearen proiektuaren inguruan, adinekoak... Gizarteko joera orokorrak dira nagusi (**gero eta zailtasun gehiago antolatzeko eta elkarrekin gauzak egiteko**).
- Elkartegintza indartsu dagoen eremuetan, halere, **badago zer hobetua**. Adibidez, kulturgintza indartsu dago, baina **bakoitzak bere esparruan dihardu, nahiko zatikatuta, sinergia gutxi**. Osagaiak baditugu, baina salda osatzea falta da. Alde horretatik, interesgarri ikusi da Sorginxulon egiten ari den lana.
- Guneak falta zaizkigu **denon artean herriko arazoak aztertzeko**.
- Kultur Etxea badugu, baina **jendarte-etxerik ez**.
- Musika Eskola Kultur Etxean dagoenetik, hainbat jarduera egiteko zailtasunak. **Harriondoa gainezka** dago.

Apirilaren 2an zehaztutako 2. lehentasuna:

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat.

Herrigintza garatzeko espazio partekatu bat

Erabileraren helburu nagusiak

- Udalerriko eragile, elkarte, sektore eta mugimendu **bakoitzari behar duenerako aterpea** eskaintzea. Herritarrak antolatu eta gai ezberdinen inguruan ekimena hartzea erraztuko duen espazio bat.
- Udalerriko eragile, elkarte eta mugimenduen arteko ezagutza bultzatzea eta **elkarrizketan jartzea**. Bakoitzak bereari begiratzeaz gain, gainerakoak zertan ari diren ezagutzeko, beste beharrez jabetzeko eta erronka batzuei elkarrekin heltzeko.
- **Udallerriaren gaur egungo erronken inguruko elkarrizketa eta gogoeta** bultzatzea herritar antolatuekin nahiz elkarte jakin batean antolatu gabe daudenekin. Herri gisa ditugun erronkei begira, elkarrizketarako eta gogoetarako espazio bat.

Ardatz nagusiak

HERRIGINTZA

ELKARLANA /
ELKARRIZKETA

ERRONKA
KOMUNEI BEGIRA

Egitasmoaren eta espazioaren ezaugarri nagusiak

- Taldeek beren **bulego-lanak** egiteko espazio bat. **Espazio ireki bat**, lanerako mahai eta ordenagailuekin. Coworking espazio baten antzekoa.
- Taldeek bilerak egin ahal izateko **bilera-gelak** (bi edo hiru). Panel edo pareta mugikorrek, bilera-gela handi bat bitan zatitu ahal izateko, esaterako.
- **Erabilera anitzeko gela handiago bat** (ikastaroak edo mugimendua eskatzen duten dinamikak egiteko, talde handiagoak elkartzeko aukera emango duena).
- Elkar ezagutzeko eta harremanak bultzatzeko **espazio partekatu eta informal bat**: egongela/sukaldea/kafe-txokoa...
- Taldeen **material arina gordetzeko armairuak**: dokumentuak, kartelak, pankartak...
- *Material astunagoa edo bolumen handikoa gordetzeko aparteko leku bat bilatu beharko litzateke, **biltegi** gisa funtzionatuko lukeena. Beti Gaztek eta dantza-taldeak dute behar hau oraingoz. Proposamena: Erdigunean lokal irisgarri bat aurkitu eta Udalak alokatzea. Ondoren, biltegi-beharra duten taldeekin erabili ahal izateko hitzarmena egin.

Erabiltzaileak

- Herriko talde, elkarte, sektore eta mugimenduak. Antolatutako herritarrak.
- Antolatu gabeko herritarrak ere bai: gaur egungo erronken inguruko gogoetak, etab. antolatzen direnean.

Zer solairu

- 1. solairua

Funtzionamendua, kudeaketa, bitartekoak, etab.: zertzelada orokorrak


- Zer eta nola egin gaur egungo erronken inguruko eztabaidak eta hausnarketa bultzatzeko? Nola bultzatu taldeen arteko elkarlana? Leku bat jartzea ez da nahikoa horretarako. Hainbat aukera:
 - Urtean behin/ bi urtean behin Alondegia erabiltzen duten taldeen artean gaur egungo erronka baten edo batzuen inguruko gogoetak/jardunaldiak antolatu.
 - Binaka ekimenen bat antolatu
 - Egiten duten lanaren inguruko erakusketak
 - ...
- Erabiltzaileekin erabilera-arauak lantzea eskatuko du. Eta Udaletik ekimenari segimendua egin eta, behar denean, dinamizatzea, batez ere, taldeak elkarrizketan jartzeko eta etorkizuneko erronken inguruan hausnartu eta egitasmoak lantzeko.

Gaur egungo erabiltzaileak

- **Beti Gazte**: Gainerako taldeak bezalaxe, espazio hau erabiltzeko aukera izango du. Horrez gain, espazio berean bulego eta bilera-gela propioa izango ditu, bere egunerokotasuneko dinamikari erantzun ahal izateko.
- **Xorroxin**: Bi aukera ikusten ditugu: Ttipi Ttaparen ondora eramatea, euskarazko hedabideak elkarren ondoan kokatuz; edo, Alondegian mantentzea, herrigintzan diharduten eragileekin espazioa partekatuz.

Azpiegitura

- Bulego-lanetarako espazio irekia: mahaiak, ordenagailuak, internet-konexioa eta inpresora
- Bilera-gelak (bi edo hiru), pareta mugikorrek
- Erabilera anitzeko gela
- Beti Gazteren bulegoa eta bilera-gela
- Espazio informal bat: egongela/sukaldea/kafe-txokoa
- Materiala gordetzeko armairuak
- *Biltegia (beste lokal/baxu batean)



Bi guneok, aldi berean, **elkarrizketan** jarri beharko genituzke, biek baitute lotura herri-garapenarekin/herrigintzarekin. Espazio batzuk partekatu egin litzakete, adib., ikastaro-gela, bilera-gelak, erakusketentzako eremua edo sukaldea/kafe-gela. Espazioa partekatzeaz gain, pentsatu beharko litzateke zer egin genezakeen bi eremuok elkarrizketan jartzeko (ekimen zehatzak). Adib. erronken inguruko gogoetak antolatzen direnean, tokiko garapenarekin lotutako eremukoek ere parte har lezakete prestaketa-lanetan eta gogoetan.

Jarraian sorturiko zalantzak:

- Igogailua eta komunak aurreikusi diren jakin nahi izan dute partaideek. Baietz argitu zaie. Igogailua egotea halabeharrezkoa izango da, eraikinak irisgarritasun-irizpideak betetzeko.

3. Proposamenak aztertu, baloratu eta ekarpenak egin

a) Taldeak egin eta lanerako giro egokia sortzeko ariketa:

Koloretako goxokien bidez bost pertsonako lau talde egin ditugu eta mahai ezberdinetan banatu ditugu. Talde bakoitzari orri bat eta bi guraize eman eta ariketa azaldu diegu: 3 minututan 30 hiruki egin behar dituzte.

Hiru minutuak pasa ondoren, talde bakoitzak bere hiruki-kopurua kontatu eta talde handian partekatu dugu helburua lortu dugun, zein estrategia erabili ditugun ariketa egiteko eta nola sentitu garen.

Jarraian ekarpenak:

- 1. taldea: 30 hiruki lortu ditugu, baina hiruki gehiago egin ditugu. Hasi gara batzuk mozten eta beste batzuk egindakoak kontatzen. 30 kontatu ditugunean amaitu dugu eta listo.
- 2. taldea: 30 hiruki egin ditugu, ez gehiago eta ez gutxiago. Aurrena pentsatu egin dugu zenbat zatitan moztu orria 30 hiruki egin ahal izateko eta, taldean planifikatu ondoren, mozten hasi gara.
- 3. taldea: 24 hiruki egin ditugu. Hasieran gure buruari baldintzak jarri dizkiogu, zalantzak izan ditugu zer nolako hirukiak egin behar genituen (denak berdinak, etab.) eta horretan eman dugu denbora.

- 4. taldea: Esan bezain laster ekintzari heldu diogu; mozten hasi gara eta segituan bukatu dugu; baina 30 hiruki baina gehiago egin ditugu, eta, gero, politenak aukeratu ditugu.



b) Proposamena aztertu, baloratu eta ekarpenak egin:

Girotzearen ondoren talde-lanerako unea iritsi da, egin berri ditugun talde-txikiak mantenduta. Talde-lanean autonomiaz jarduteko, jarraibideak banatu dizkiegu eta eskatu diegu talde barruan rolak banatzeko: bideratzailea, denbora kontrolatuko duena eta akta jaso eta ondoren bozeramaile-lanak egingo dituen.

Lehenik eta behin **bakarkako hausnarketa** egin dugu galdera hauen inguruan:

- Zein da proposamenaren inguruan dudan inpresio orokorra?
- Zer gehitu, kendu edo aldatuko nuke?

Bost minutu bakarkako hausnarketan aritu ondoren, talde-txikitan **inpresio-orokorrak** partekatu ditugu eta, jarraian, **ezer kendu, gehitu edo aldatu** aztertu dugu, adostutako alderdi bakoitza positibatean jasoz. Ondoren, talde txikietan landutako alderdiak talde handian partekatu ditugu.



Proposamenaren inguruko inpresio orokorrak:

- **Oso positiboa**, oso aukera ona, interesgarria, kudeatzeko erronka.
- **Sorpresa ona, proposamena oso lurreratuta**, Cedernaren presentzia ingeresgarria eta Beti Gazte eta xorroxini lekua bermatzea garrantzitsua.
- **Ona**. Zalantzak egitasmoak zertan zehaztuko diren: zer enplegu-mota, zer erabilpen...

- Orokorrean **oso positiboa** iruditu zaigu aurkeztutako proiektua, **oso aukera ona** eta **proiektu interesgarria** da. **Tamaina aldetik zalantza** dugu eraikinean ea dena sartuko ote den. Badakigu handia dela, baina behar bada hainbertze gauza ez dira sartzen. Ikusi dugu ideia interesgarria eta polita baina **kudeatzeko erronka bat** da. Printzipioz hagitz ideia ona.
- **Ona, sorpresaz eta harriduraz** hartu dugu. **Oso lurreratua** dago proposamena, ez da ideia hutsean geratu. Garrantzitsua iruditu zaigu **Cedernak bertan lekua** izatea herritarrentzat hain eskura dagoen espazio batean, eta Harriondoa horren ibilia dagoenez, Alondegiaeren erabilera berriek behar bada lagunduko dute orekatzen. Bestalde, **Beti Gazte eta Xorroxinek bermatu dute lekua** eta hori ere garrantzitsua iruditu zaigu.
- Inpresio orokorra **ona** da. **Zalantza** batzuk sortu zaizkigu, ez ideiarekin, **ideia hori egikaritzeko moduarekin** baizik: Zer erabilpen emango zaio? Zer enplegu mota barne hartuko dira? Paperean denak aguantatzen du eta ideia ona da, baina errealitatera nola eraman aztertu beharko da.
- Inpresioez aritu baino sortu zaizkigun **zalantza konkretu** batzuen inguruan aritu gara: proiektuaren arabera egokitu behar dela espazioa, nolakoa izango den kudeaketa...

Ondorio gisa ikusi dugu proposatutako ideia egoki ikusten dela, baina egitasmoak are gehiago zehaztu beharko direla oraindik. Ondoren, **proposamenetik zer gehitu, kendu, aldatu edo zalantzak** partekatu ditugu.



OROKORREAN

<p>ZER GEHITUKO GENUKE?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskol Ttiki Alondigaren espazio-banaketaren logika berdinean sartzea, proiektuari lotzea. • Gaur egun Coworking-erako bideratu den espazioa ere proiektuan txertatzea. Coworking-a Alondegiara mugitu eta gaur egun coworkingera bideratuta dagoen lokala egitasmoaren logikan kokatu. Adib. biltegia bertan jartzeko aukera. • Komunikazioaren lanketa. Alondegian egingo dugun hori komunikatu beharko dugu, ikusgarritasuna eman eta jendea hurbiltzeko estrategiak pentsatu, partehartzea bultzatu. • Alondegian horrelako proiektu bat jartzen badugu, pentsatu beharko dugu herrian aparkaleku gehiago jartzea, ez espazio horretan bertan, baina bai espazio horren erabilerak ekarriko dituen aparkaleku-beharrak asetzeko, enpleguaren egitasmoak eskualde-mailako irismena izango badu.
<p>ZER ZALANTZA SORTZEN ZAIZKIGU?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espazio batzuk partekatuak izango badira eta, beste batzuk, ez. Nola banatuko dira? Nola kudeatuko dira? • Nola kudeatuko dira garbitasuna, materiala, eraikinaren zaintza... Kuota bat jarriko al dugu erabiltzaileok? Gure artean banatu behar al dugu? Bizikidetzeta-arauak landu beharko ditugu. • Kudeaketa nolakoa izango da? Bitartekari bat beharko dugu espazioa bideratzeko. • Nerabeen ahotsa non dago? Azaldu dugu nerabeak gonbidatu direla prozesura, baina ez direla hurbildu. Nerabeek erabilera egin nahi izanez gero, aukera izango dute, baina egitasmoak ez diete berariaz nerabeen beharrei erantzuten.

HERRIGINTZA GARATZEKO ESPAZIO PARTEKATUA

<p>ZER GEHITUKO GENUKE?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Dinamizatzaile edo kudeatzaile baten beharra. • Gorputzarekin eta mugimenduarekin lotutako dinamikak egin ahal izateko espazioa aurreikusi beharko litzateke. • Soinuaren kudeaketa aztertu beharko da: erabilera ezberdinek eskatzen dutenera egokitzeko, kontzentratzeko guneak sortzeko... • Tailer eta eskulanak garatzeko espazio propio bat, zikintzea ahalbidetuko duena.
<p>ZER KENDUKO GENUKE?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espazio batzuk erabilera partikularra izatea aurreikusi da. Zalantzak. Horiek hor kokatu behar al ditugu?
<p>ZER ZALANTZA SORTZEN ZAIZKIGU?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarbizitza edo erabilera-arau batzuk jartzea garrantzitsua da, erabiltzaile guztien arteko gutxieneko harremana sortzeko, ez dadila izan bakoitzak bere aldetik erabiliko duen espazio soil bat, harremanak sustatu beharko dira.

BERTAKO ENPLEGUA, TOKIKO GARAPENA, BERRIKUNTZA, EKINTZAILTZA ETA TREBAKUNTZA

ZER GEHITUKO GENUKE?	<ul style="list-style-type: none"> Sukalde industrialaren proposamena mahai gaineratu da, lehen sektorea indartzeko. Nekazariak beren elikagaiak enbotatzeko, marmeladak egiteko eta trebakuntza eskaintzeko. Guztiok bat egin dugu Alondegia ezaugarri horietako sukalde baterako ez dela lekurik egokiena erabakitzerakoan eta azpiegitura horrek, gainera, orain arteko egitasmoa baldintzatuko lukeela irizterakoan. Aipatu da, ordea, Cederna Alondegira mugitzen bada, gaur egun Cedernak erabiltzen duen espazioa horretarako aukera bat izan daitekeela.
ZER KENDUKO GENUKE?	<ul style="list-style-type: none"> Herrigintza eta enpleguaren espazioetan erabilerak bikoiztea. Bi solairuak eta erabilerak osagarriak izan daitezke, adibidez, bilera-gelak edo trebakuntza-gelak parteka daitezke. Ongi aztertu eta espazioa ahalik eta gehien aprobetxatu beharko da.
ZER ZALANTZA SORTZEN ZAIZKIGU?	<ul style="list-style-type: none"> Bere garaian enplegua sustatzeko proiektu bat egin zen, igerilekuko behe solairuan garatu behar zena... Proiektua egite ondo dago baina gero egingo al da? Formakuntza/enplegua sustatuko duen espazio bat behar dugu, belaunaldi errelebo bat behar dugu ostalaritzan. Nolakoa izango da kudeaketa? Cederna bertan egoteak lasaitzen gaitu. Espazioa dinamizatu eta kudeatuko duen norbait behar dugu. Espazioaren banaketak kezkatzen gaitu. Zer suposatzen du Cederna Alondegira mugitzeak? Pertsona bakarra edo gehiago etorriko dira? Zenbat espazio hartuko dute? <ul style="list-style-type: none"> Cedernak hasiera batean bulego propio bat eta trebakuntza homologatuak izateko ikastaro-gela bat beharko luke. Cedernak herriko diagnostikoa egiten lagun diezaguke eta, erabilera eta formakuntza aldetik, eskaintza bizia izatea proposatu dugu, ez soilik sektore bati lotua. Enplegua sustatzeko espazioan arituko diren ekintzaileei denbora mugatu behar al zaie? Araudia adostu beharko da. Enplegua sustatzeko espazio horrek zein enplegu-motari emango dio erantzuna? Formakuntza beharrak asko dira eta askotarikoak baina lehentasun batzuk ezarri beharko dira.

Ekarpenak jaso eta egitasmoak gehiago zehazterakoan kontuan hartuko ditugula argitu dugu.

4. Hurrengo urratsak eta balorazioa

a) Hurrengo urratsak

Alondegiaeren etorkizuneko erabilerak landu eta adosteko fasea hemen bukatzen dela gogoratu dugu, baina hau guztia ez da hemen bukatuko. Ladis Satrustegi alkateak **hurrengo urratsen berri** eman du:

- Proiektuaren xehetasunak lantzen eta erabakitzen jarraitu behar dugu, eta horretarako, oso interesgarria litzateke **Jarraipen Talde bat** sortzea, egitasmoa lantzen jarraitzeko interesa dutenekin.

Epe laburrera begira:

- Cederna Garalurrekin eta Nafarroako Gobernuarekin nahiz Nafarroako beste erakunde batzuekin egitasmoa partekatuko dugu.
- Eraikina erabilera berrietara egokitzeko obra-proiektua landu beharko da. Proiektua lantzerakoan, prozesuan parte hartu dutenekin nahiz etorkizuneko erabiltzaileekin kontrastatu beharko da zirriborroa eta ekarpenak elkarrekin landu.

Epe ertainera begira:

- Obra gauzatzeko finantzaketa bilatu.
- Obra egin.



Saioa baloratzeko, alde batetik, **balorazio-fitxak** ere bete ditugu bakarka. Jarraian jaso ditugu **emaitzak**.

Balorazioa, oro har, oso ona izan da. Hala ere, puntuaziorik altuena bi alderdi hauek jaso dute:

- Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.
- Giroa: Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.

	1	2	3	4	5
Saioan zehar nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut.				%10	%90
Saioan parte hartu duten gainerako pertsonen entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera izan dut.			% 5	%21	%74
Lanerako eta iritziak partekatzeko giroa egokia izan da.				%16	%84
Gustura geratu naiz emaitzarekin: Alondegia erabiltzeko zehaztutako erabilerekin				%26	%74
Gustura nago prozesuarekin				%21	%79

Partaideek nabarmendutako alderdiak

<i>Jende anitzak parte hartu du, ezberdinak.</i>	<i>Inplikazioa</i>	<i>Partaidetza handia</i>	
<i>Kristoren ideia polita da prozesu hau herriarekin partekatzea. Aberatsa eta sormena bermatzen duena. Oso oso pozik.</i>	<i>Lesaka indartzeko aitzinera pausoak eman dire.</i>	<i>Beti eskertzekoa da administrazioak herri ondasunen erabileraz, etorkizunaz... eragileei eta herritarrei iritzia eskatzea.</i>	<i>Herritar bezala parte hartzeko aukera izatea.</i>
<i>Proposamena ona eta, nahiko konkretuak ideiak.</i>	<i>Atera diren ideia/proposamenak hagitz interesgarriak.</i>	<i>Herri mailan udaletik lan handia egiten ari da. Bakoitzak bere beharrak ditu eta erronka handia suposatu du.</i>	

Aurrerantzean hobetzeko alderdien artean, bakar bat aipatu da:

- *Arautegia lantzeko beharra, prozesuan hagitz inportantia elkarbizitarako.*

Bestetik, norberaren balorazio eta sentipenak taldearekin partekatzeko asmoz, gela termometro bat dela irudikatu dugu (punta batean hotz eta bestean bero) eta, gelan zehar mugituz hainbat alderdi baloratu ditugu elkarrekin.

1. Zenbateraino gaude gustura emaitzarekin/Alondegiaren etorkizunerako zehaztutako erabilerekin?

Partaide guztiak erditik gune beroenera dagoen tartean kokatu dira, eta bi ideia partekatu dituzte taldean:

- *Erdigunean kokatu naiz oinarrizko zalantza batzuk ditudalako oraindik. Konkrezio gehiago behar dut, proiektuak lur hartzea.*
- *Oso gustura nago, baina erronka handia dugu, espazio bat behar askori erantzuteko.*

2. Zenbateraino gaude gustura prozesuarekin?

Partaide ia guztiak termometroaren gune beroenetik hurbil kokatu dira. Jarraian egindako ekarpenak:

- *Prozesua garrantzitsua izan bada ere, partehartzea ez da oso handia izan, horregatik kokatu naiz erdigunean. Ez da prozesuari kritika bat, herritarrei baizik, beti berdinak gabiltza parte hartzen, herritarren inplikazio faltak kezkatzen nau.*
- *Me ha faltado que en la fase de escucha se tuviera en cuenta el tema de la salud.*
- *Eskualdeko ikuspegia txertatzea oso garrantzitsua iruditu zait, ikuspegi zabala ematen du.*
- *Gustatu zaizkit ariketak eta gustatu zait Cederna ere gonbidatu izana, garapen estrategikorako ezinbestekoa da. Honez gain, eta hemendik aurrera zein gai gehiago begiratu ditzakegu ikuspegi zabal horrekin?*
- *Udaletik aipatu nahi da oposizioari luzatu zitzaioala prozesuan parte-hartzeko gonbita, zuzenean talde bat osatzekoa eta saio-irekietara etortzekoa ere, baina ez dute gonbidapena hartu.*
- *Oso pozik nago aukera hau izan dudalako, batzuen eta besteen beharrak entzun, ezagutu... Behar bada ez dute herritar askok parte hartu baina aukera eman duzue eta horrekin oso pozik nago ni.*
- *Bestelako beharrak detektatzeko oso interesgarria izan da prozesu hau.*

3. Zenbateraino gaude gustura gaurko saioarekin?

Partaideen gehiengoa termometroaren gune beroenean kokatu da.

Eskerrik asko saioan eta prozesuan parte hartzeagatik!